

GALAPAGO IRLETAKO EREDUAK (eta 2)

Testua eta argazkiak: *Txomin Peillen*

NARRASTIEK gehienik zuten pairatu Galapagos irletan, zuzenean edo zeharka, han gizonak lehenbizikoz sartu zirenean; lehen itsasgizonek *Testudo elephantina* edo *Testudo elephantopus*, Galapagos irletako dortoka erraldoia eta haren arrautzak ere jan egiten bait zituzten. Narrastien artean baldin gizona ez bazen lur- eta itsas iguanen jatera emana, berak berarekin ekarritako zakur, katu eta arratoiak kaltegarri handiak izan ziren, *Conolophus* izeneko lur-iguana galzorian ipiniz eta *Amblyrhynchus* (azken aldian ikusia) hobeki irteten zelarik. Beraz dortoka erraldoia eta lur-iguana begiratzeko eman diren urratsak eta erabili diren ikerbideak jakin-garriak dira, nonnahi jakintzaren eta izadiaren onetan pizti-mota bat salbatu nahi denean. Hona zer ikasi dugun San Cristobalgo Centro Darwin delakoan, salbapen-ekintza horiei buruz. Hazteko leku batean animaliak nola zaindu dituzten adieraziko dugu segidan.

Iguanak

Zeuden lekuetatik basa zakurrak, mendi-katuak eta ahal guztiz arratoiak galerazi ondoren, lur-iguana Isabela irlako Bahia Cartago-n bildu zituzten 1982an eta Santa Cruz irlako Cerro-Dracón-en 1987an sartu zituzten hazkuntzan jaiotako lur-iguanak. Geroago ezagutzeko eta jarraipena egiteko bakoitzari buru gainean daukan kukulan berunezko perla koloretsu eta kodetua lotu zitzaion, askatasunean nola handi-



Dortoka erraldoiak korralean.

tzen, nola hazten diren -sei hila-betero- ikertzekotan.

Santa Cruzen dago lur-iguanen hazlekua eta 1976.az gero irletan



bildutako iguanen bidez narrasti hauen taldea ugaldtu egin da, ezen hazleketan etsairik ezaz, 110-130 egun luzatzen duen arrautzen umotzeak baldintza egokienetan egiten bait dira. Gero gazteak ondo zaindutako eta ikusi ez ditugun Isabela eta Santa Cruz irltako txokoetan askatzen dira. Seymour irlaren iparraldean zeudenak ere bildu zituzten eta hazlekuan sartu. Geroago ondoko Isla Baltra-n (giza biztanlerik gabeko aireportu-eremu denean) askatu zituzten.

Beraz, lau pausuk bete ziren: galzorian zeudenak biltzea, esparruan haztea, irltako hondakariak garbitzea eta iguana gazteez beste lekuak bizi eraztea.

Dortoka erraldoiak

Latinez, bizpahiru izen dauzkanez gero nere ustez azkena *Geochelonia elephantopus* da, UZEI-k onartua, aldatu ez duguna. Dortoka honek, gizona aski ez eta espeziea galerazteko mendi-katuak, basa zakurrak nahiz arratoiak etsai zituen eta arerioen eraginez 1965ean hazkuntzaren asmoak eta egitasmoa gauzatu zirenean galzo-

Berrehun eta berrogeitamar kiloko dortoka erraldoi arra (Oficina Central delako hazteko lekuan).

rian zegoen. Egitasmo horretarako, dortoka gehienak Ecuadorko lehorrean eta etxeetan bizi zirenak bildu zituzten. Quiton ere baziren eskoletan eta. Gero ezin ziren laga basamortuan, iguanen alderantziz, basa bizitzaren sena galduta zutelako. Ez zen haiekin arra eta emea aske lagatzeko saiorik egin: bildutako gehienak gatibu bizi eta hilko dira.

Iguanekin egin zen bezala, leku-ko hondakariak, harrapariak, galarazi edo mugatu egin ziren, arrautzak erruteko lekuak zaindu, baina ez zen aski eta nahikoa izan dortoka-kopurua handitzeko. Azkenean hazteko lekura, korraletara, bildu ziren, ezen dortoka heldu gutxiegi zenean bildu bait zituzten arrautzak hegaztien atzaparretatik salbatzeko. Horrela, Española irlako dortoka txikiagoa gorde egin zen, azken horietatik hamabost bildu

ziren eta orain lekuan askaturik 350 dira, basatasunean ugalduko direnak...

Dortoka erraldoi errule gehienak, ordea, oraindik esparruan daude. Kumeak, harraparien arriskutik ihes egiteko, heldu arte ez dira dortokadun irltara igortzen. 1971. urteaz gero hazteko lekutik basa lekuetara 1.100 dortoka erraldoi banatu dira. Dortoka erraldoiak hazteko, arau estuak betetzen dira. Arrautzen umatzeak 85-200 egun iraun lezake, umeak azaroan edo maiatzean sortuz. Jaio bezain laster belar berdea eman ohi zaie; mendikoetatik edo Darwin ikertetxeko baratzetik. Hiru hilabetero neurtuz, bizpahiru urtez etxe-animalia moduan hazten dira. Gero urtebetez basa janariak ematen zaizkie; opuntiarene "sagar arantzaduna" eta janari latzagoak. Leku gehiagorekin bizi dira korrale handiagoan, askatasunera ohitzearen. Lau urteren buruan izadira bidaltzen dira. Irla batera igortzen dituzte basapiztibizitza eraman dezaten.

Hor ere lan ederra daramate, edo berek diotenez abiatu, ezen pizti horien jarraipena ez bait da aski sendoa gizonak espezie baten heriotzarekiko borroka irabazi duela esateko.